

---

# HUMANISMOAREN ALDEKO REQUIEMA

 JAVIER DEL ARCO

Askatasuna-berdintasuna-senidetasuna, funtsezko hiru hitzak horrela idatzirik, elkarrekin, berezi ezinda, hirurek hiperhitz bat, hiperkontzeptu bat eratuz. Azken batean, hiperutopia moderno bat besterik ez izaten segitzen dute. Abiapuntutzat hartzen badugu Iraultza Frantsesa bahitu egin dutela neurri handi batean, eta esfinge edo ikono bihurtu, aitortu beharko dugu zuhaitz soziopolitiko zaharra ahul dela, zahar akitu, usteldua, neoliberalismo deitutako multzo ideologiko horrek –oso-oso kontserbadoreak diren arrazoi eta interes multzo horrek- usteldu baitu; eta hiltzorian da, estatu mundializatu triste batean, horixe baita postdemokrazia. Nire ekarpen honek ideiak eta lanabesak landu nahi lituzke, gure haritz zaharrari inausi ahal izatearren bere jatorrizko edertasuna desitxuratzen duten txerto erreakzionario baldar askotarikoak; erosokeria postburgesen zur usteldua erauzi eta, ahalegin eta zainketa handien bidez, pizti ikaragarrien gordelekua den enbor lizundu eta huts horrek kimu berriak eman ditzan saiatu, iraultzaile hutsa den bere jatorrizko kemen genetikotik erne behar baitute.

Oso modu okerrean norbaitek esan duen moduan, espezie hautatua gara. Espeziea bai, nork aukeratua ordea? Biologia modernoak erakusten du espezieak, elkarrekin eta inguru aldakorrekin zoriz elkarrekintzan ari diren gene berekoien zorroak, ez direla gai bere patuak kontrolatzeko; gizakia, espezie zoologiko bat azken batean, ez da salbuespena maila honetan. Baina badirudi hori ahantzi egiten duela aurrerapenez, eraikin kristau zaharraren aztarna arkeologiko horretaz, hitz egiten ari denean; horregatik, humanismo esaten zaion hori aurrerapenean sinestea besterik ez da, jakinduria teknozientifiko hazkorrek gaixotasunaren mehatxutik begiratuko duen, gero eta ongizate handiagoa eskainiko dion eta bizitzaren mugak luzatuko dizkion itxaropena. Ilusio hutsala berau zeren eta gizakia, gaur egun duen jakinduria inolako zalantzarik gabe areagotuko zaion espezie bizkorra eta sormenez betea bera, espezierik harraparien eta suntsitzaileena ere baita. Gaur egun, progresismoak eta kontserbadurismoak eta “ezkerra” eta “eskuina” terminoek dagoeneko zentzurik ez dutela, lehen begirada batean badirudi egia bihurtu dela ideologiaren gainbeheraren iragarpena; baina kontua zera da, beste bat dela eztabaida, hain zuzen eboluzionismo darwindarraren eta humanismoaren artean, edo politeismo naturalaren eta monoteismo biblikoaren artean. Aurrerapenari buruzko funtsezko kontu bat: oparotasun iturritzat hartzen duenaren baikortasunaren eta, ezkortasun arrazionaletik eta giza izaeraren berekoikeria eta harrapakierarako joera kontuan hartuta, hori gertatzea sinesgaitza izateaz gain ezinezko ere ikusten duenaren arteko eztabaida.

Orain, teknikaren eta fedearen artean eskusartzerik ez izateko eta elkarrekin lankidetzan aritzeko hitzarmenaren ondotik –hitzarmen teknokratiko prototalitarioa da, inolaz ere-, salbaziorako itxaropena humanismo teknozientifikoan dago ezen, paradisua ez bada ere, bitzta luzeago eta kalitate handiagoko baten itxaropena ekarriko digu. Eta garrantzitsuena ez da pentsamendua batzea, globalizaturik edo mundializaturik, ideia ekonomiko liberalen inguruan (ez gero eta nabarmenago prostituitzen eta desitxuratzen diren politiken inguruan), baizik eta “nazio hautatu” berri bat ezartzea, Estatu Batuak, bere burua arrazoi, eskubide eta santutasun iturritzat aldarrikatzen duena.

Gehienak, masa gizartean beti-beti gertatzen den moduan, aberats edo txiro, ezjakintasunik itzelenean murgildurik mantentzen dira: zati aberatsa, merkataritza zentro arrunt edo luxuzkoaren kobazulo berrietan sarturik; zati pobrea, berriz, axolagabekeriak, presak, lan prekario eta duintasunik gabeak eta kirtentzeak erraiak jaten dizkiotela. Bitartean, zientzialari biomedikuen gutxiengo aukeratu batek, giza genoma ezaguturik eta XXI. mendeko injinerutza nagusiaren, genetikaren, laguntzaz baliatuta, giza bilakaeraren kontrola hartzea lortu du, nahiz oso maila txikian den oraingoz. Giza bilakaera kontziente baten ideia sortu da. Gizateria bere patuaz arduratzeak espezieari kontzientzia eta intentzioa atxikiz gero du zentzua: baina darwinismoak esaten digunez, espezieak korronteak dira, ez besterik, geneen joira etengabea. Mende honetan zehar gizakiok gai baldin bagara gure geure izatea birmoldatzeko, ez da aurretiko inolako asmo edo desirarengatik izango, baizik eta enpresa handien, globalizazioaren eta lur ilunetako zirrikitu sakon eta sare antzekoen fruitu den nazioarteko krimen antolatua eta estatu garaikideen arteko borroka ikaragarri zenbaiten azkeneko emaitza.

---

Une honetan, Lurrean 6.000 milioi pasatxo gizaki gaude. Neurri zorrotzik hartu ezean, 2050erako kopuru hori, gutxienez, beste 1.200 milioi pertsonaz areagotuko da. 8.000 milioi inguruko giza biztanleria ezin da mantendu, non eta ez den planeta erabat suntsituz; horrenbestez, beharrezko artifizialtasun biologikoari egingo zaio tokia, hain zuzen hainbesteko gizaki kopuru neurri gabea elikatu ahal izatearren. Horrela, aro geologiko berri bat sortuko da, “eremozoikoa”, eta honetan jada ez da biodibertsitateirik izango, baizik eta gizakiak eta gizaki hauek elikatzeko behar diren proteinak, lipidoak eta karbono-hidratoak. Badirudi bi bide daudela gizakiak, harrapari berekoi eta odolzale horrek, nahi duena lor ez dezan. Edo Lurraren autoerregulazio mekanismoek berek planeta gizakientzat bertan bizitzeko desegokiago egitea, edo gizakien beren jardueren ondorio sekundarioek (klimaren aldaketak eta berotegi efektuak, besteak beste) erabat etetea gaur egungo hedapen demografikoa.

Animali populazio batek bere berezko habitata gainditu eta modu esponentzian hazten denean, izurrite bihurtzen da. Eta horiek erregulatzen dituen eredu matematikoa bete egingo da; halaz, kolapsoaren une gorena ehun urte pasatxo izango da eta, 2150erako, biosferak berreskuraturik izan beharko ditu izurritearen aurretiko homo sapiens kopuruetako segurtasun-mailak, mila milioi biztanle ingurukoak alegia. Gizakiak beharbada ez dira gai Lurra desagerrarazteko, bai ordea bertako ingurumena zeharo hondatzeko eta bertan bizi ahal izatea izugarri zail bihurtzeko. Eta teknologia berriak anibalenteak dira, janikoak: gaur egungo gizakiaren arazo asko konpon ditzakete, baina aldi berean beste zenbait sor, zeren eta teknologia hauek harrapatzeko, ebasteko, hiltzeko ere balio baitute. Pogromak kristautasuna bezain zaharrak dira; baina trenbiderik, telegraforik eta zyklon gasik gabe Holokaustoa edo gulag stalinistak ez ziratekeen bideragarriak izango.

Gizakiak inoiz teknologia menderatzea ez lortzeko arrazoirik sakonena zera dugu: teknologia bat sartzean gizakiak berak aldatzen duela, sekula ulertu ahal izango ez ditugun muturretaraino. Diotenez, aurrerapen morala teknozientifikoa baino askoz motelagoa da; baina hori gure errua da. Itxura ekologista edo “berdeko” pentsalariak eta ekintzaileak inozo hutsak dira. Teknologiaren aurkako bere borrokan, esaten digute mundua ezin dela gizakiaren helburuen tresna bihurtu. Oker dabilta, zeren eta teknika, teknologiaren aurretikoa alegia, ez baita berez gizakiaren lanabes bat, gu baino askoz aspaldikoago eta primitiboagoak diren inurriek eta erleek argi eta garbi erakusten diguten moduan. Gure gorputzak naturaltzat eta gure teknologiak artifizialtzat hartzea sapiensaren etorrera ekarri zuen akzidente biologikoari garrantzi handiegia ematea da. Are gehiago, azkenean makinek ordezkatzeko bagaituzte, horixe da-eta asmoa, bakteriak gure lehenbiziko arbasoak sortzeko elkarrekin konbinatu zirenean gertatu zen bilakaera-aldaketa haren maila bereko bat gertatuko da.

Humanismoa erlijiosoa, marxista, existentzialista, teknologikoa edo ekologista izango da. Salbaziorako doktrina bat da, eta gizateriaren ziurtasuna predikatzen du, bai mundu honetan duen patuaren jabe izateko eta, hau berau jada nahikoa utopikoa bada ere, baita izaera ezezaguneko beste mundu batzuetan bere patuaren jabe izateko. Gizakiek, bere ekintzaren bidez, ez dute beharrezko gaitasun biologikoa bere burua zein planeta salbatzeko. Lehen bazen, eta bada oraindik ere kultura animistetan, gure psikean nahikoa sustraiturik dagoen eta ekologismoaren agerpena azaltzen duen ideia bat: beste espezie biziekiko patu komunaren kontzientzia. Baina gizaki gehienek, bere bilakaeran, ez dituzte irizpide moral intermitenteak jarraitzen –are gutxiago bere interes propioa-, baizik eta unean uneko beharrak. Giza espeziea, maila politikoan garrantzirik ez duen gutxiengo batek ongi ezagutzen badu ere bilakaera-egitatearen munta, honi bizkar emanda bizi da, gizateria-itxaropen faltsuez drogaturik.